

Sariak. zorionak irabazleoi

Gillermo ETXEBERRIA

Urriaren erdi aldera, ugari samar izan ziren euskal arloan sari banaketa. Sariaketa horien artean nabarmenenak Euskadi Saria eta Irungo saria izan ziren.

Euskadi sariari gagozkilarik, lehenengoa prentsan agertu zena itzulepenari emandakoa izan zen. Irabazlea Josu Zabaleta, *Rosetta* taldekoa. Zorionak Josu.

Josuren historia luzea da itzulpen munduan. Hordagoren fundazioetik, 1977an, *Tximista Sailaren* ardura bere gain hartu zuen. Ondoren, Martuteneko Itzultzaile Eskolako irakasle, eta gerora...

Narratiba arloan Ramon Saizarbitoriaren *Gorde nazazu lurpean* kontakizun bildumak irabazi zuen Euskadi Saria. Guztira 91 lan azertu zituzten epaimahalkoek: Arantxa Urretabizkaia, Jose Austin Arrieta, Laura Uruburu, Gorka Aulestia, Ur Apalategi eta Francisca Pulgarrek osatua zegoen epaimahala. Arantxa Urretabizkaia laburtu zuen epaimaharen iritzia: "Goi mallako literatura emaitza lortu du. Bost narrazioak lotzen dituen hari tematikoa sotila izaki, batasun sentsazioa nagusitzen da galen ezberdintasunaren gainetik. Liburu kultua da, historia eta zientzia ongi uztartzen dituen".

Aurretik beste sari eta alpamenak hartutako liburuak da hauxe: *Kritika saria*, Beterrikoa eta orain, *Euskadi Saria*.

Ereinek argitara emandako *Gorde nazazu lurpean* liburuak, bost narrazio biltzen ditu, desberdinak baina funtsean hari gidari bakarra dutenaren sentsazioa egiten duena. Denetan gorpu bat ateratzen dute lurpetik eta horren aitzakian, Saizarbitoriak bere ohiko galak garatzen ditu, gerra, Euskal Herriko egoera, bikote harremanak...

Autoreak berak ere sorpresa hartu omen du sariaren berri eman diotenean: "Sorpresa hartu dut, liburu hau gaizki ulertuko zuten beldur nintzen, pentsatzen nuen Itxia zela, Ironikoa, eta badirudi jendeak ondo hartu duela", esan zuen.

Bestalde, Haur eta gazteen literaturan, *Euskadi Saria* Tolosako idazle Karlos Linazasorontzat izan da *Bota gorriak* liburuari esker. Epai-mahaikoak Felipe Juaristi, Arantza Baltategi, Xabier Kaltzakorta, Jon Suarez, Nerea Arregi eta Francisca Pulgar izan dira. Juaristik egin zuen bozeramaile lana eta haren meritua azpimarratu zuen "malla handiko beste lan eder batzuen artean". Azken momentura arte Joserra Garziaren *Tunelan bestaldean* eta Aingeru Epaltzaren *Baloi-ka* egon ziren lehian.

Karlos Linazasoro, pozik egoteaz gain hrrituta zegoen saritutako liburu honek aurretik izan zuen oihartzun eskasaz: "..honek izan duen oihartzun eskasak ni neu ere harritu nau, besterik ez bada ere euskaraz ez ezik gaztelaniaz, katalanez eta galegoz ere argitaratu delako, eta hori ez delako gurean sarri gertatzen".

EGAN aldizkariari dagokiona, zoriontzea da eta segi dezazuela adorez euskal literaturaren onerako.